



Assa Ikastola
Batxilergo 1 - Ekonomia
2024-2025 ikasturtea
Onura jatetxea

KOSTUEN EGITURA

Kostuen egitura enpresaren proiektu baten gastu guztien antolamendua da. Honek barne hartzen ditu gastu ekonomikoak, ingurumenekoak edo sozialak, eta proiektuaren jasangarritasuna bermatzeko ezinbestekoa da. Kostuak argi zehaztea eta analizatzea baliagarria da baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko eta irabazi-marjina optimoak mantentzeko.

Egitura honek bi galdera nagusi erantzuten ditu, Zeintzuk dira gure gastuak? eta Zeintzuk dira proiektuaren hasierako ibertsioen estimazioak?. Gure gastuak, ura, argia, eta lekuaren alokairua izango dira. Gastu hauek, finkoak (alokairtua) eta aldakorrak (argia eta ura) izaten dira. Alokairua beti prezio berdina izango delako, berriz hileroko argia eta ura zenbat erabiltzen dugun arabera prezioa aldatu egingo da. Gure proiektuaren hasieran hainbat gastu daude, jatetxea ipiniko dugun tokia alokatu edo erosi, gure baliabideak biltegi batean gordeko ditugunez alokatu beharko dugu. Soldatak ipini beharko ditugu gure langileei eta makineria ere erosi beharko dugu, hau da, mahiak, ahulkiak, sukaldaritza, frijigailuak, labeak eta beste hainbat tresna. Gainera argia eta ura ere erosi beharko dugu gure enpresa ondo funtzionatzeko.

Gure proiektuaren gastuak taldeka antolatu ditugu, eta identifikatu ditugu. 3 kostu mota azpimarratzen dira; aldakuntzaren arabekoak, produktuekin eta zerbitzuarekin lotuta dauden kostuak eta kostu sozialak eta ingurumenekoak.

Lehenik, zenbatekoaren kostuaren arabera, 2 ataletan banatzen dira; kostu finkoak eta kostu aldakorrak. Kostu finkoak, ekoizpen edo jardueraren bolumena edozein dela ere, beti berdinak izango dira gastuak edozein zirkustantzia. Horrenbestez, lokalaren alokairua, elektrizitatea eta langileen soldata finkoak kokatzen dira. Kostu hauek ezin dira aldatu, beti berdinak izango direlako. Kostu aldakorrak, ordez, jarduera, edo ekoizpen-bolumenaren arabera aldatzen dira gastuak. Oro har, lehengaien kostuak eta banaketa gastuak aurkitzen dira. Lehengiak depende eta denbora aldatuko dira denbora pasaz, eta banaketa gastuak depende eta nondik hartzen dugu gure produktuak.

Ondoren, produktuekin edo zerbitzuarekin duen loturaren arabera, beste 2 bereizten dira, kostu zuzenak eta kostu zeharkakoak. Kostu zuzenak, produktu edo zerbitzu zehat bati lotuta daude. Non materialen kostua, sukaldea eta etxetresna elektrikoak ikusten



ASSA IKASTOLA

*Assa Ikastola
Batxilergo 1 - Ekonomia
2024-2025 ikasturtea
Onura jatetxea*

dira. 3 hauek, bai lehengai, elektrizitate eta zerbitzuarekin lotuta daude hirurak. Kostu zeharkakoak ordeztatu, parduera guztietan banatzen diren gastuak dira. Era berean administrazio-gastuak daude, non gastu guztiak aztertzen dira eta ikusten dira, dirua kontrolatzeko eta sahiesteko.

Bukatzeko, kostu sozialak eta ingurumenekoak, gure jardueraren eragin sozialak edo ekologikoak, nahiz eta ekonomikoak ez izan izaten dira. Honakinak kudeatzeko gastuak eta komunitatean eragindako inpaktuak murrizteko inbertsioak dira emen daudenak. Hondakinak, ezin dugu edozein lekutan botatu. Hori kutsatsagarria izango da eta izun potente bat eman ahal digute. Komunitateko inpaktuak, inbertsio honek kalteak konpentsatzeaz gain, egungo eta etorkizuneko belaunaldientzat ingurune jasangarriagoa eta bidezkoagoa sortzea ere bilatzen du.

Proiektuak hasieran inbertsio handiak eskatzen ditu, jatetxea izango dugun tokia alokatu beharko dugu eta horrekin bat biltegia baita alokatu beharko dugu gure baliabide guztiak leku horretan jartzeko. Gainera, nekazariak ekartzen dizkiguten baliabideak gure jatetxeraino garraiatzea ere kostu bat izango du eta hori ordaindu beharko dugu. Gure jatetxerako argia eta ura hilerik ordaindu beharko dugu eta makineria beharko dugun guztia, gure jatetxean mahaiak eta aulkiak egongo dira bezeroak jan ahal izateko. Honekin kalkulatu al dugu gutxi gora behera edukiko ditugun gastuak baina janaria saldu eta gero jakin dugu dirua irabazi egingo dugula eta posible on bat lortu egingo dugula.

Kostu guztien artean lehentasunak ezartzea garrantzitsua da. Ezinbesteko kostuak, baliabideen garraioa, jatetxearen eta biltegiaren alokairua, argia eta ura, makineria, hau da, mahaiak, aulkiak, labea, sukaldaritza, etb... garrantzitsuak dira enpresa aurrera eramateko, bestetik bigarren mailako kostuak beste batzuk dira, iragarki gehigarriak egitea edo kartelak kaletik jartzea...

Gure jatetxeko ekonomia ahuldu ez dadin eta eraginkorra izan dadin, administratzaile bat kontratatuko dugu, gure jatetxeko paper, gastu eta aurreko guztiak eguneratzeaz arduratuko dena. Pertsona hori gure proiektuaren parte izango da eta honekin lanpostu berri bat sortuko dugu herriko jendeari laguntzeko.

Guzti hau jakinda gure kostuen egitura ongi zehaztea enpresaren arrakastarako oinarritzakoa da, horregatik gure kostuen balioak ezarri ditugu eta gure kostuak zehaztu ditugu, zeri hemango diogun lehentasun gehiago erosteko orduan eta zer izango da garrantzitsua alokatzeko eta ordaintzeko momentuan. Egitura honen bidez, baliabideen



Assa Ikastola
Batxilergo 1 - Ekonomia
2024-2025 ikasturtea
Onura jatetxea

erabilera optimizatuko da eta ustekabeko gastuei aurre egiteko prest egongo gara. Kostuen ebaluazioa eta eguneratzea jarraitua izan behar dira, jasagarritasuna bermatuz.